



ERDITZE LANA URETAN EGITEKO BAIMEN INFORMATUA CONSENTIMIENTO INFORMADO PARA ASISTENCIA AL TRABAJO DE PARTO EN EL AGUA

A. IDENTIFIKAZIOA:

EMAGIN ARDURADUNAREN IZENA:
.....Data:

B. INFORMAZIOA:

Erditze lanean ur berotan murgiltzea mina arintzeko teknika ez-inbaditzaile, seguru eta eraginkorra da. Amaren erosotasuna areagotzen da uretan murgilduta. Erditzeak aurrera egitea errazten du, eta ondorioz, erditzea ahalik eta esku-hartze txikienarekin izatea ahalbidetzen da.

Uretan bularreraino murgilduko da haurduna, eta tenperatura 36,5°C -37°C inguruan mantenduko da. Dilatazioaren fase aktiboan erabiltzea gomendatzen da.

ONURAK:

- Mugikortasuna eta erosotasuna hobetzen ditu dilatazioan, eta horrek prozesuaren gaineko kontrola erraztuko du.
- Muskuluen erlaxazioa errazten du, amaren antsietatea, eta minaren sentsazioa murrizten ditu eta, beraz, neurri txikiagoan behar da analgesia epidurala erabiltzea.
- Erditze-lanean ura erabiltzea amaren gogobetetze handiagoarekin lotzen da.
- Oxitozina jariatzen laguntzen du, erlaxazioaren ondorioz.

C. ERDITZEA ERAGITEAREN ARRISKU ETA KONPLIKAZIOAK:

Orain arte dagoen ezagutzaren arabera, dilatazio-fasean uretan murgiltzea mina arintzeko metodo segurua da, betiere ospitaleko protoloaren jarraibideak zorrotz betetzen badira baionuontziaren erabiltzaileen hautaketa eta zainketei dagokionean eta garbiketa eta desinfekzio protokoloa betetzen baldin bada. Hala ere, konplikazio hauek gerta litezke:

- Amaren hipotentsioa.
- Amaren hipertermia.
- Urak transmititutako infekzioak.

A.- IDENTIFICACIÓN:

NOMBRE DE LA MATRONA RESPONSABLE:
.....Fecha:

B INFORMACIÓN

El uso de la inmersión en agua caliente en el trabajo de parto es una técnica no invasiva de alivio del dolor, segura y eficaz. Mejora el confort de la madre y favorece el transcurso del parto con la menor intervención posible.

La inmersión en el agua se realiza hasta el pecho, manteniendo la temperatura en torno 36.5°C -37°C. Se recomienda su uso en la fase activa de la dilatación.

BENEFICIOS:

- Mejora la movilidad y comodidad durante la dilatación, favoreciendo el propio control sobre el proceso.
- Favorece la relajación muscular, disminuye de la ansiedad materna, disminuye la sensación del dolor y por tanto se precisa en menor medida la analgesia epidural.
- El uso del agua durante el trabajo de parto se relaciona con una mayor satisfacción materna.
- Favorece la secreción de oxitocina, secundaria a la relajación.

C.- RIESGOS Y COMPLICACIONES DE LA INDUCCIÓN DEL PARTO:

Según el conocimiento disponible hasta el momento, el uso de la inmersión en el agua durante la fase de dilatación es un método seguro de alivio del dolor siempre que se cumpla rigurosamente con el protocolo de inclusión y cuidados de la gestante en la bañera y el protocolo de limpieza y desinfección de la misma establecidos en cada hospital. No obstante, podrían ocurrir complicaciones como:

- Hipotensión materna.
- Hipertermia materna.
- Infecciones transmitidas por el agua.



Kanporatze-aldian, ordea, jaioberrien konplikazio larriak izan dira, hala nola:

- Ur geza xurgatzea eta, ondoren, pneumonia, eta horrek jaioberriaren asfisia eragitea.
- Zilbor-hestea haustea.
- Jaio berriaren infekzio orokorra.
- Urak eragindako intoxikazioaren ondoriozko, konbultsioak eta alterazio analitikoak (hiponatremia), ondorio neurologikoak edo jaioberriaren heriotza ere eragin ditzaketena.

Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, ur azpiko kanporatzea ez dago jaioberriarentzako arriskuetatik salbuetsita, eta, beraz, ez da gomendatzen jaiotzeko modu planifikatu gisa. Kanporatze-aldia iristen denean, uretatik kanpora aterako da emakumea edo bainuontzia hustuko da. Hala ere, neurri horiek hartzeko denborarik ez izateko aukera txikia dago, kanporatzea uretan murgilduta eman daitekeela jakinarazi behar da.

Profesional arduradunak bainuontzia uztea komeni dela uste badu, beharrezkoa da haren jarraibideei jarraitzea.

KONTRAINDIKAZIOAK:

Haurdunaldia eta/edo arriskuko erditzea, sukarra edo infekzio-susmoa, baginako odoljario aktiboa, eta amaren mugikortasuna eragozten duen edozein arazo fisiko edo amaren obesitatea.

OSPITALEAK BEHAR DIREN BITARTEKOAK IZANGO DITU PREST, GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIO HORIEI AURRE EGITEKO.

D. ESAN IEZAGUZU:

Honako hauek badituzu, esan behar diguzu: medikamentuekiko alergiak, koagulazioaren asaldurak, bihotz-biriketako gaixotasunak, protesiak, taupada-markagailuak, egungo medikazioak, edo beste edozein kontu; izan ere, arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna handiagoa izan daiteke haien eraginez.

En cambio, su utilización durante el periodo expulsivo se ha acompañado en ciertos casos de complicaciones neonatales graves como son:

- Aspiración de agua dulce y posterior neumonía con asfisia del recién nacido.
- Rotura del cordón umbilical.
- Infección generalizada en el recién nacido.
- Intoxicación debida al agua, que provoque convulsiones y alteraciones analíticas (hiponatremia), y pueda ocasionar secuelas neurológicas o incluso la muerte del recién nacido.

Según la información disponible, se considera que el expulsivo bajo el agua no está exento de riesgos para el recién nacido y, en consecuencia, no se recomienda como forma planificada de nacimiento. Llegado el periodo expulsivo, se procederá a su traslado fuera del agua o a vaciar la bañera. Aun así, existe una baja posibilidad de que no dé tiempo a adoptar estas medidas y el expulsivo acabe produciéndose en inmersión.

En el caso que se produzca alguna situación en la que el profesional responsable vea conveniente abandonar la bañera, es importante que siga sus indicaciones.

CONTRAINDICACIONES:

Gestación y/o parto de riesgo, fiebre o sospecha de infección, sangrado vaginal activo, problema físico u obesidad materna que dificulte su movilidad.

EL HOSPITAL PONDRÁ A SU DISPOSICIÓN LOS MEDIOS NECESARIOS PARA TRATAR ESTAS POSIBLES COMPLICACIONES.

D.- AVISENOS:

Es necesario que nos advierta de posibles alergias medicamentosas, alteraciones de la coagulación, enfermedades cardiopulmonares, existencia de prótesis, marcapasos, medicaciones actuales o cualquier otra circunstancia, ya que pueden aumentar la frecuencia o la gravedad de riesgos o complicaciones.

E.- ARRISKU PERTSONALIZATUAK:

Baliteke pertsona bakoitzaren ezaugarri bereziek eta gaixotasunek (diabetesa, hipertentsio arteriala, anemia...) arriskuen edo konplikazioen maiztasuna eta larritasuna handitzea. Emaginak eman dizu zure kasuan dauden arrisku zehatzen berri.

F.-ORDEZKO AUKERA:

Amak hala erabakitzen badu, analgesiadun edo analgesiarik gabeko ohiko arreta eskainiko diote dilatazio-fasean.

Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa: interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak tratatuko dituela. Tratamendu HISTORIKO KLINIKOaren helburua da pazientearen historia klinikoko datuak izatea, haren jarraipena egiteko eta asistentzia-jarduera kudeatzeko, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betez. Datuak jakinaraz dakizkieke Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, GSINi, agintaritzak judizialei eta aseguru-erakundeek. Datuak interesdunak berak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetza osasun-langileek emandakoak dira. Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta haien tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko ere. Datuak babesteari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara: <https://www.osakidetza.euskadi.eus/datuenbabesa/>

DOKUMENTU HAU SINATZEN DUT ONGI IRAKURRI OSTEAN ETA NIRE ZALANTZAK GALDETU ETA ARGITZEKO AUKERA IZAN ONDOREN. BERAZ, ZER EGIN BEHAR DIDATEN ULERTU OSTEAN, ITXARON DAITEZKEEN EMAITZEN ETA HORTIK ERAGIN DAITEZKEEN ARRISKUEN BERRI IZAN ONDOREN.

E.- RIESGOS PERSONALIZADOS:

Algunas circunstancias personales específicas y enfermedades (diabetes, hipertensión arterial, anemia...) pueden aumentar la frecuencia o gravedad de riesgos o complicaciones. Su médico le ha informado acerca de los riesgos específicos en su caso.

F.-ALTERNATIVA:

Si la madre así lo decide, se le ofertará la ayuda habitual con o sin analgesia durante fase de dilatación.

Información básica sobre protección de datos: Se informa a la persona interesada de que sus datos personales serán tratados por Osakidetza – Servicio vasco de salud. La finalidad del tratamiento HISTORIAL CLINICO es la de disponer de los datos de la Historia Clínica del paciente para el seguimiento del mismo y la gestión de la actividad asistencial, conforme al cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento. Pueden realizarse comunicaciones de datos al Departamento de Salud del Gobierno Vasco, al INSS, a autoridades judiciales y entidades aseguradoras. Los datos proceden de la propia persona interesada, del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y de personal sanitario de Osakidetza. La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento. Podrá ampliar información en materia de protección de datos en la siguiente dirección web: <http://www.osakidetza.euskadi.eus/protecciondatos>

FIRMO ESTE DOCUMENTO DESPUÉS DE HABERLO LEÍDO Y HABER TENIDO LA OPORTUNIDAD DE PREGUNTAR Y ACLARAR MIS DUDAS. POR TANTO, DESPUÉS DE HABER ENTENDIDO LO QUE SE ME VA A HACER, LOS RESULTADOS ESPERADOS Y LOS RIESGOS QUE DE TODO ELLO PUEDAN DERIVARSE.

Pazientea/ El Paciente

Pazientearen izen-abizenak

Nombre, dos apellidos

Sinadura eta data

Firma y fecha

Emagin/EI/La Matrona

Emaginaren izen-abizenak eta elkargokide-zenbakia.

Nombre, dos apellidos y nº de colegiado del/de la matrona.

Sinadura eta data

Firma y fecha

Legezko Ordezkaria: pazientea edo adingabea ezgaituta badago / Representante legal: en caso de incapacidad del paciente o menor de edad

Legezko ordezkariaren izen-abizenak, NANA eta ahaidetasuna

Nombre, dos apellidos, DNI y parentesco del representante legal

Sinadura eta data

Firma y fecha

Pazientearen edo legezko ordezkariaren ATZERA EGITEA / DESISTIMIENTO del paciente o representante legal

Ulertzen dut zenbaiterainoko irismena eta arriskuak dituen adierazitako prozedura EZ BETETZEAK. Eta baldintza horietan erabiltzen dut atzera egiteko eskubidea.

Comprendo el alcance y los riesgos de NO SOMETERME al procedimiento indicado. Y en tales condiciones ejerzo mi derecho de desistimiento

Sinadura eta data

Firma y fecha